

Distopya now

Miren
AZKARATE BADIOLA

Influencer, likes, youtubers, followers... Badirudi inoiz baino gehiago ingelesa jakin behar dela gaur egungo mundu globalizatu honetan bizitzeko. Tira, bizitzeko baino gehiago, hitz egiteko edo entzuten duzuna ulertzeko behinik-behin. Esaldi berean horrelako bizpahiru hitz sartzen dizkidatenean galdu egiten naiz eta deskonektatu egiten dut erabat. Entzuten ditudan hitz horien inguruan ezer gutxi dakit, baina jakin badakit moda-modan daudela.

Duela egun batzuk bideo bat iritsi zitzaidan mugikorrean ditugun talde

horietako batera eta oraindik asimilatu ezinik nabil bertan ikusi nuena. Japoniako zubi baten azpian bata bestearen ondoan eserita zeuden gazte batzuk ageri ziren. Haien artean metro bateko distantzia ere ez zuten eta parean bakoitzak mugikor bat eta argia emateko foku txiki bat zituen. Off-eko ahotsak zioen *streaming* bidez ari zirela zuzenean emititzen eta kokalekua estrategikoa zela horretarako. Jende asko dagoen lekuetan ikustaldi gehiago zituztela eta ondorioz *match* edo *likes* gehiago, eta ondorioz diru gehiago lortzen zutela. Ufa!!! Nik, bai, behar izan

nuen bideo horren ikustaldi bat baino gehiago zeozer ulertzeko!

Ekuaizioa da: edukia igotzeaz bizi den jendea haiengandik zenbat eta gertuago egon edo zenbat eta jende masa handiagoak bizi diren gunee-tan egon, berdin, diru gehiago. Edo hori ulertzen dut nik, behintzat.

Nobela distopikoen jarraitzaile su-tsua naiz, izugarri gustatzen zaizkit. Baina hau gehiegizkoa da! Beldurra ematen dit eta, era berean, tamalgarria iruditzen zait, egiari zor.

Kontua ez da ez dudala ingelesa ulertzen; uste dut ez dudala mundu hau ulertzen! •

Euskainola

Amagoia
MUJIKA TELLERIA

Martxa honetan aurki erdaraz hitz egingo dugu euskaraz ari garela-koan», bota zuen aspaldi Lazkao Txikik. Eta egunero, belarriak esna ditudan bitartean, askotan akordatzen naiz gogoeta horrekin. Euskainola entzuten da barra-barra. Bi hizkuntzen elkarbizitza hain gertukoa izanda, ulertzekoa da nahasketa. Naturala ere bai, segur aski. Kezkatzen nauena da, binomio horretan, zein hizkuntzak hartuko duen pisu handiagoa, zeinek bozgorailu ozenagoa. Hiru esal-

ditik bat erdaraz edo hiru esalditik bat euskaraz? Eta pentsatu, euskaraz edo erdaraz? Eta amestu? Eta haserretu? Eta beldurtu? Eta maitatu?

Eusko Jaurlaritzak VII. Inkesta Soziolinguistikoa aurkeztu du. Erabilera, ezagutza, transmisioa eta jarrera, dena gorantz omen doa. Euskara gero eta gazteagoa omen da eta jendarte euskararen aldeko jarrera gero eta aldekoagoa. Egia esan, inkestaren datu asko harrigarri bezain pozgarri gertatu zaizkit, begirada ilunxeagoaz ikusten baitut nik panorama.

Ona da euskararen alde egotea, baina ez da nahikoa. Pozgarria da euskararen ezagutza gero eta zabalagoa izatea, baina ez da nahikoa. Nik inguruan sumatzen dut euskaraz natural eta aise ari-tzen direnak gero eta gutxiago direla. Eta horri lotutako datua ere topatu dut inkesta soziolinguistikokoa: euskaraz errazago dabiltzan euskaldunen kopurua zazpi puntu jaitsi da 30 urtetan. Erdal elebidunak sei puntu igo dira.

Lazkao Txikik burua altxatuko balu, tristuraz ikusiko luke baietz, arrazoia zuela. •